

G I D A

p f e z - r e n

BEREZITASUN FISKALEN

eginaren

eginez

asociación de personas
con discapacidad física de Álava

arabako gutxitasun fisikoa duten
pertsonek elkarrekin



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergak zer berezitasun fiskal ditu ahalmen-urritasuna duten pertsonentzat?

Berezitasun fiskal hauek:

- 1.-Prestazio jakin batzuetan zerga-salbuespenak
- 2.-Lan-etekinak kalkulatzeko berezitasunak
- 3.-Izaera orokorrez aurreikusi diren hobariak baino hobari handiagoak
- 4.-Izaera orokorrez aurreikusi diren murrizketak baino murrizketa handiagoak likidazio-oinarria kalkulatzeko
- 5.-Izaera orokorrez aurreikusi diren kenkariak baino kenkari handiagoak likidazio-kuota kalkulatzeko PFEZFAk xedapen jakin batzuk ditu %65eko ahalmen-urritasun maila edo handiagoa dutenentzat, bai eta ahalmen-urritasuna judizialki eta Kode Zibilaren arabera aitortua dutenentzat ere, ahalmen-urritasuna maila horretara iritsi ez arren. Hori ezartzen du 3/2007 Foru Arauaren hamargarren xedapen gehigarriak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZFA) arautzen duenak.

Zer prestazio edo errenta salbuesten dira?

9. artikuluan adierazitako errentak eta PFEZFaren 44. artikuluan aurreikusten diren ondare irabaziak. Laburbilduta, oker edo hutsik ezean:

- a)Gizarte-segurantzak (edo hura ordezkatzen duten erakundeek) ahalmen-urritasun mota hauek dituztenei onartzen dizkien prestazioak: baliaezintasuna eragiten ez duten lesio iraunkorrrak; ezintasun iraunkor partziala, erabatekoa edo absolutua; edo baliaezintasun handia. Dena den, ezintasun iraunkor partziala edo erabatekoa dutenek ez dute salbuespenik izango (ezintasun horregatik jasotzen dituzten prestazioak lanaren etekin gisa hartuko dira kontuan), baldin eta zergadunak jasotzen dituen lan-etekinak ez badira PFEZFaren 18. a) artikuluan aurreikusitako lan-etekinak bezalakoak edo zergadunak ekonomia-jardueren etekinak jasotzen baditu. (Kasu horretan, salbuespenez, prestazio horiek aldizka jasotzen baditu, prestazio horiek salbuetsi egingo dira lehenengo aldiz jasotzen dituen zergaldian, eta ez dira lan-etekin gisa hartuko).
- b) Klase pasiboan erregimenean ezintasun iraunkorragatik jasotzen diren pentsioak:

- lesioak edo gaixotasunak pentsioaren jasotzailea erabat ezgaitu badu edozein lanbidetan jarduteko
- Zergadunak jasotzen dituen lan-etekinak eta PFEZFaren 18.a) artikuluan aurreikusitako lan-etekinak edo ekonomia-jardueren etekinak bertsuak badira (kasu horretan, salbuespenez, salbuetsi egingo dira prestazioa lehenengo aldiz jasotzen duen zergaldian, eta ez dira lan-etekin gisa hartuko).



- c) Pertsona ezgaituek errenta moduan jasotako prestazioak, Gizarte Aurrezaintzarako Erakundeek ekarpenei dagozkienak. PFEZFaren 74. artikuluan (PFEZFaren 74. artikulua bidalita) ezartzen diren baldintzak bete behar dituzte erakunde horiek. Gehienez, lanbidearteko gutxieneko soldataren hirukoitza jaso dezakete.
- d) Senitartekoen zaintzarako eta banan-banakako laguntzarako ematen diren prestazio ekonomiko publikoak, betiere norbanakoaren autonomia sustatzeko eta besteren beharra duten pertsonak zaintzeko legearen ondorio badira.
- e) Mendekotasun oso larrian edo mendekotasun larrian dauden pertsonak etxebizitza eskualdatzeagatik lortutako ondare-irabaziak, betiere norbanakoaren autonomia sustatzeko eta besteren beharra duten pertsonak zaintzeko legearen ondorio badira.

2.- Lan-etekinak kalkulatzeko berezitasunak

PFEZFaren 9. artikulua arabera salbuetsita ez badaude, zergaren oinarria kalkulatzeko, lan-etekintzat hartuko dira, besteak beste:

- Ezgaitasunarengatik erakunde publikoek ematen dituzten prestazioak (salbuespenez, ekonomia-jardueretan aritzen direnek prestazioak eta zenbatekoak jasotzen badituzte, eta jarduera horietarako aldi baterako ezintasuna badakarte, jarduera horien etekin gisa zenbatuko dira);
- Aseguruen kontratuen onuradunek ezgaitasunarengatik jasotako prestazioak, PFEZFaren 18.a artikuluan aurreikusitakoaren arabera eta aipatu artikuluan ezarritako moduan (aseguru-kontratuen onuradunek ezgaitasunarengatik jasotzen dituzten prestazioak ez badira PFEZFaren 18.a artikuluan aurreikusitako bertsuak, higikorren kapitalaren etekin gisa hartuko dira, PFEZFaren 39.1 artikulua d) eta f) idatz-zatietan ezarritako moduan).

Prestazio horiek errenta gisa jasotzen badira, lanaren etekin gisa zenbatuko dira osotasunean.

Baina prestazio horiek kapital modura jasotzen badira, kasuan kasu, %25 edo %60 soilik zenbatu ahaliko dute, eta ez %100, PFEZFaren 19. artikuluan ezarritako moduan (faktore hauen arabera: zer prestazio mota den; prestazioa jasotzen duen lehenengo aldia den ala ez; lehenengo edo, kasuan kasu, azkeneko ekarpenaz geroztik zenbat urte igaro diren; aseguru-kontratua noizkoa den; zer ezgaitasun-mota eta -maila duen; etab.).

3.- Izaera orokorrez aurreikusi diren hobariak baino hobari handiagoak

PFEZFaren 24.1 artikulua aurreikusten duenez, lanaren etekin osoari gastu kengarriak kentzean lortzen den emaitza (positiboa) hainbat zenbatekotan banatuko da. Zenbateko horiek aldatu egiten dira emaitzaren arabera. Emaitzak hiru multzotan sailkatzen dira: 7.500 euroko emaitzak, 7.500 eta 15.000 euro artekoak edo 15.000 eurotik gorakoak.

PFEZFaren 24.3 artikulua aurreikusi egiten du PFEZFaren 24.1 artikuluan ezarritako izaera orokorreko hobariak ehuneko hauetan handitzea:

- %100 langile aktibo ahalmen urrikoentzat, baldin eta euren ahalmen-urritasun maila %33koa edo hortik gorakoa eta %65etik beherakoa bada.

- %250 langile aktibo ahalmen urrikoentzat, baldin eta euren ahalmen-urritasun maila %33koa edo hortik gorakoa eta %65etik beherakoa bada eta mugikortasun murriztuko gabezi-egoeran badaude (abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren III. eranskinean zehaztutako baremoaren A, B edo C idatz-zatietan jaso diren egoeraren batean badaude edo D, E, F, G edo H idatz-zatietan jasotako egoeretan 7 puntu edo gehiago badituzte).
- %250 langile aktibo ahalmen urrikoentzat, baldin eta %65eko edo hortik gorako ahalmen-urritasun maila badute edo ahalmen-urritasuna judizialki eta Kode Zibilaren arabera aitortua badute, ahalmen-urritasuna maila horretara iritsi ez arren (PFEZFaren Hamargarren Xedapen Gehigarria).

4.- Izaera orokorrez aurreikusi diren murrizketak baino murrizketa handiagoak likidazio-oinarria kalkulatzeko

Zerga-oinarriari hainbat kenkari aplikatuz lortzen da likidazio-oinarri orokorra. Hemen, bigarren kenkaria da kontuan hartu beharrekoa; gizarte-aurrezaintzarako sistemei egindako ekarpenei buruzkoa, hain zuzen ere.

PFEZFaren 72. artikulua baldintzak betetzen dituzten gizarte-aurrezaintzarako sistemei, ahalmen urri pertsonen alde eratu direnei, egiten zaizkien ekarpenek urteko murrizketa-muga jakin bat dute. PFEZFaren 72. artikuluko baldintzak betetzen dituzten gizarte-aurrezaintzarako sistemei egindako ekarpenengatik izaera orokorrez murrizten den zenbateko maximoa baino dezente handiagoa da muga hori. Hori da, hain zuzen ere, berezitasuna.

Horrez gainera, ahalmen-urritasuna duen pertsonak egiten dituen ekarpenak ez badira murrizketa-muga maximoa iristen, pertsona horrek besteengandik jasotzen dituen ekarpenei murrizketak aplikatu ahaliko zaizkie:

- Kasu horretan, ahalmen urrikoen alde ekarpenak egiten dituzten pertsonen PFEZFaren zerga-oinarrian egingo da murrizketa "gehigarria", baldin eta pertsona horiek eta ahalmen-urritasuna duenak PFEZFaren 41.1 artikulua araberako ahaidetasun- edo tutoretza-harremana badute.
- Izaera orokorrez ezarritako urteko muga izango du murrizketa horrek. Ahalmen-urritasuna duen pertsona beraren alde ekarpenak egiten dituzten pertsona guztien murrizketek ezin dute inola ere ahalmen urrituentzat ezarritako murrizketa-muga maximoa gainditu. Beraz, murrizketa proportzionala izango da: hurrengo bost ekitaldietan murriztu ahaliko dira murrizketarik jaso ez duten ekarpenak.
- Eta murrizketa horrek ez die kalterik egingo pertsona horiek jasotzen dituzten murrizketei; hau da, beren gizarte-aurrezaintzarako sistemei egiten dizkieten ekarpenengatik jasotzen dituzten murrizketei.



5.- Izaera orokorrez aurreikusi diren kenkariak baino kenkari handiagoak likidazio-kuota kalkulatzeko

Bi faktore gehituz lortzen da kuota osoa: bat, likidazio-oinarri orokorraren karga-tasak (eskalaren araberako karga-tasak) aplikatzean lortutako zenbatekoa; eta bi, aurreztutakoa. Kuota osoari murrizketa batzuk eginez lortzen da likidazio-kuota.

Hau da kontuan hartu behar duguna: likidazio-kuota kalkulatzeko, PFEZFAk aurreikusi egiten du ahalmen urriko pertsonen lotutako bi kenkari jakin aplikatzea, bai eta ohiko etxebizitza alokatzeagatik aplikatuko den kenkari berezitasun bat izatea ere.

a) Ohiko etxebizitza alokatzeagatik aplikatuko den kenkaria: ezintasun iraunkor partziala, erabatekoa edo absolutua, edo baliaezintasun handia aitortua duten pertsonen ohiko etxebizitzaren alokairuarengatik ordaindutako zenbatekoen ehuneko bat kendu ahalko dute. Dena den, urteko kenkari maximo bat izango dute (urteko kenkari maximoaren ehunekoa eta muga orokorrean baino handiagoak izango dira). PFEZFaren 88. artikulua.



b) Ahalmen-urritasunarengatik edo mendekotasunarengatik aplikatzen den kenkaria (PFEZFaren 84. artikulua). Mendekotasun- eta ahalmen-urritasun mailaren eta puntuen arabera da kenkariaren zenbatekoa. Abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren I eta II eranskinetan eta apirilaren 20ko 504/2007 Errege Dekretuan xedatzen dira mendekotasun- eta ahalmen-urritasun maila eta puntuak neurtzeko irizpideak (504/2007 Errege Dekretuaren bidez, onartu egiten da abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak, xedatutako mendekotasun-egoeraren balorazioaren baremoa).

Kenkari hori ahalmen-urritasuna edo mendekotasuna duen pertsonari aplikatu ahalko zaio edo ahaide bati utzi ahalko dio, baldin eta ahaideak PFEZFaren 84.2 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen baditu (ahalmen urrituak jasotzen dituen diru-sarrerak ezin dute Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren bikoitza baino handiagoak izan, eta kenkaria uzten dion ahaidea 4. mailako ahaidea izan daiteke gehienez).

c) Ahalmen-urritasuna duen pertsonaren ondare babestuari ekarpenak egiteagatik aplikatzen den kenkaria: Ahalmen urriko pertsonarekin PFEZFaren 87.2 artikulua araberako ahaidetasun- edo harrera-harremana dutenek ahalmen urrituaren ondare babestuari (azaroaren 18ko 41/2003 Legeak arautua) egiten dizkieten ekarpenentzat, urteko muga maximoa duen kenkari-ehuneko bat ezarri da. Ahalmen urriko pertsonak bere ondare babestuari egiten dizkion ekarpenek ez dute murrizketarako eskubiderik izango.

Horrez gainera, PFEZFaren 80 ter artikulua sartu da, 2011ko zergaldirako soilik. Artikulu horrek kenkari bat aurreikusten du ezintasun iraunkor erabatekoarengatik salbuespenik gabeko pentsioak jaso dituzten zergadunentzat (pentsio eta hartzeko horien zioz zenbatutako lanaren etekin garbiaren %1, zerga-oinarria 20.000 eurotik gorakoa izan ezean).

LOTUTAKO LEGEDIA

- 3/2007 Foru Araua, urtarrilaren 29koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoa (ALHAO 18. zk., 2007ko otsailaren 12koa, Gehigarria), eta haren aldaketak.

- 76/2007 Foru Dekretua, Diputatuena Kontseiluarena, abenduaren 11koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegia onartzen duena (ALHAO 135. zk., 2007ko abenduaren 28koa), eta haren aldaketak.

Arabako Foru Aldundiaren web-orrian -www.alava.net- kontsulta daiteke arautegia; atal hauetan, hain zuzen ere:

- "Herritarrak/ Ogasuna/ Arautegia/ Zerga Arautegia/ Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas".

- "Herritarrak/ Ogasuna/ Arautegia/ Zerga Araudiak/ Araudiak/ Reglamentos Tributarios/ Reglamentos/ Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas".

Arautegi hori urtero eguneratu ohi da, abenduan. Beraz, web-orriaren atal horiek urteko eguneraketa egin ondoren kontsultatuz gero, hurrengo urtean PFEZri aplikatu beharreko araudia agertuko da bertan. (Gaur egun, 2011ko PFEZ kanpainari aplikatu beharreko araudia kontsulta daiteke atal horietan. 2010eko PFEZ kanpainari aplikatu beharreko araudia web-orri honetan kontsulta daiteke: www.alava.net/renta2010).

**GIDA HAU 2011KO APIRILEAN EDITATU ZEN ETA BERE EDUKIA
ORDURA ARTEKO ARAUDIAN OINARRITUTA DAGO.**